

**Antón Costas Comesaña**  
*Bartzelonako unibertsitatea*

**M**ende bat geroago, kapitalismoak XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako hamarkadetan zituen ezaugarri bereizgarrietako bat berreskuratu du: enpresa-kontzentrazio handia dago ekonomia zaharreko sektore tradizional gehienetan, eta monopolioak sortu dira Interneteko teknologiek lotuta dauden ekonomia berriko jardueretan.

Ziurrenik, Covid-19ak eragindako osasun-krisiari jarraituko dion krisi ekonomikoak areagotu egingo du merkatu-formak eratzeko joera hori, non enpresa bakar batek (monopolioa) edo enpresa-multzo txiki batek (oligopolioa) sektore edo industria bat kontrolatzen duen. Enpresa asko desagertuko dira eta beste askok arazoak izango dituzte bizirik irauteko; hori dela eta, oso probablea da fusio- eta erosketa-bolada berri bat gertatzea, eta horrek sektore-kontzentrazioa areagotuko du.

Oligopolizazio gero eta handiago horren inplikazio ekonomikoak zenbait eratakoak dira. Batzuk enpresen funtzionamenduarekin daude lotuta (sartzeko hesiak, lehiakide-kopurua murriztea, produktibitate kaskarra, inbertsio gutxi, eta berrikuntza-ahalmena eta dinamismo ekonomikoa galtzea). Beste inplikazio batzuk sozioekonomikoak dira (soldata baxuak, enpleguaren prekarietatea, errenta- eta aberastasun-desoreka). Eta kontuan hartu behar dira, halaber, ondorio politikoak (eragina politikan, populismoa) eta kapitalismoaren etikaren gainerako ondorioak (Adam Smithen aipatu zuen «oso aberatsak direnen sentimendu moralak usteltzea» zela merkatu-boterearen ondorioetako bat).

Saiakera honetan, merkatu-botereak soldata baxuekin, enpleguaren prekarietatearekin eta errentabanaketaren desorekekin lotuta dituen inplikazio ekonomikoak aztertuko ditut. Ondorio horietan arreta jartzeko asmoak Joan Robinsonen lanak berriz irakurtzea ekarri dit. Egile hori aitzindaria izan zen lehia perfektuko eredu klasikoa hausten, eta azterketa-eremu berri bat sortu zuen, lehia ez-perfektuko

ekonomiari eta eredu horrek soldatetan eta enpleguan dituen ondorioei buruzkoa. Joan Robinsonen lanen azterketak aukera emango digu merkatu-botereko egoeren aurkako irtenbideetara hurbiltzeko.

### **Kapitalismoaren azal berri-zaharra: enpresa-kontzentrazioa**

Ekonomia garatuetan izandako kontzentrazioaren eta oligopolizazioaren gorakadari buruzko ebidentzia empirikoak eztaba daezinak dira. Duela hilabete batzuk, *The Economist* aldizkariak ale berezi bat argitaratu zuen: «Trustbusting in the 21st Century» (2018ko azaroaren 17a). Hor, egileak (Patrick Foulis) adierazi zuen ekonomia zaharreko oligopolioek eta ekonomia berriko monopolioek kontrolatutako aro batean gaudela («An Age of giants»), eta monopolio eta oligopolio horiek lehiaren ahultasuna eragiten dutela ekonomiako sektore guztietan.

Definizioaren arabera, gerta liteke enpresa bat lehiakorra ez izatea salmenten, enpleguaren, jabetza-eskubideen edo datuen kontzentrazio handia badago enpresa gutxi batzuen eskuetan; eta posibleak (kapitalaren gainerako itzulkinak) denbora-epe luzeetan ohi baino askoz handiagoak badira, eta oso gutxi badira bai merkatuan dabiltzan enpresetatik ateratzen direnak, bai merkatuan sartzen diren lehiakide berriak. *The Economist* aldizkariaren ikerketak argi eta garbi utzi zuen gaur egun inplikazio horiek guztiak gertatzen direla.

Merkatuan aspalditik dabiltzan enpresa nagusiek ez dute onartzen bizimodu erraza dutenik. Merkatu nazionaletan sendotu badira ere, globalizazioak lehia bizirik egotea eragiten duela diote. Baina merkataritzaren mendekotasun txikia duten sektoreetan, enpresak itzulkin izugarriak izaten ari dira. *The Economist* aldizkariak kalkulatu du ezohiko mozkinen zenbatekoa 660 mila milioi dolarrekoa

dela. Ezohiko mozkin horien % 78 Estatu Batuetako ekonomian sortzen dira, % 28, Europako ekonomian; eta gainerako % 2a, berriz, gainerako ekonomietan, Txinakoa barne.

Ekonomia zaharreko oligopolioek konfort-egoera lortu dute (industria askotan, lau enpresa handik neurrigabeko merkatu-kuota dute), eta ekonomia berrikoek, berriz, laster lortu dute maila altuko merkatu-boterea eta jabetza-kontzentrazioa eratzea. Bestalde, merkaturan sartzen diren enpresa berriak xurgatzeko joera handia dute, negozioren batean kalterik egiteko ahalmena dutela pentsatuz gero. Jokabide hori beren merkaturan sartzeko hesiak ezartzea bezala da.

Hala ere, ekonomia berriko oligopolioen inplikazio ekonomikoek sortutako kezka ez da ondasun- eta zerbitzu-merkaturan duten kuotak eragindakoa —ezaugarri hori dute ekonomia zaharreko oligopolioek—. Beste mota bateko enpresa-kontzentrazioa baliatzen dute; hain zuzen ere, gure buruen eta eguneroko bizimoduaren gaineko merkatu-kuota: asteen nabigatzen ematen dugun ordu-kopurua; sare sozialak erabiltzen dituzten pertsonen ehunekoa; sareak erabiltzea prezioak alderatzeko eta onlineko erosketak egiteko; sakelako telefonoa tiket moduan, hegazkinetarako eta trenetarako txartel moduan, edo dendetan eta bestelako establezimenduetan ordainketak egiteko erabiltzea. Jarduera mota horien batez besteko merkatu-kuota oso altuak dira, pertsona heldu gazteen artean batik bat; beraz, aurreikusteko moduko kontua da kuota horiek gora egingo dutela denbora igaro ahala.

Bestalde, oligopolio teknologikoen negozio-eredua ez da oligopolio tradizionalen negozio-eredua bezalakoa. Oro har, plataformen negozioaren oinarri nagusia ez da diru-transakzio bat eskuratzea ondasun eta zerbitzuen truke. Exakzioa edo ordainarazpena baliatzen dute gehiago, plataformen datu-baseetan sartu nahi duten erabiltzaileei edo beste enpresa batzuei aplikatzen zaizkien zenbait motatako komisioen bidez. Izan ere, enpresa teknologikoen merkatu askotan ez dira prezioak erabiltzen, honelako transakzioak egiten baitira: kontsumitzaileei zenbait zerbitzu doan ematen zaizkie, haien datuak gordetzeko eta erabiltzeko eskubidearen/baimenaren truke. Horrela, komisio-hartzaile bat balitz bezala jardunda, sektore teknologikoa kontsumo-ekonomia guztia estaltzen duen laino baten moduko zerbait bihurtu da. Hori dela

eta, zaila da enpresa horiek ordeztea. Gero eta datu gehiago pilatzen dituzte guri buruz; horrenbestez, gero eta zailagoa da hornitzailez aldatzeko erabakia hartzeko aukera izatea.

Eta beldur hau sortzen da: urrun ez dagoen etorkizun batean, adimen artifiziaia gai izango dela kontsumitzaileek beren bilaketetarako edo erosketetarako erabilitako sareetako makinei kolusioa eginarazteko, gure datuekin erosketa-aukeraketak egiteko orduan, eta aukeraketa horretan hautatzen dituzten zerbitzuen kalitatea eta prezioa ez direla guk hautatuko genituzkeen kalitateak eta prezioak izango.

Oligopolio teknologikoen mozkinak, BPGd-arekiko adierazita, oraindik ez dira neurrigabeko zenbateko bat. Hala ere, burtsan duten kapitalizazioa neurrigabekoa da mozkin horien aldean, eta alderdi horretan, ekonomia zaharreko enpresa handien kapitalizazioa baino askoz handiagoa da. Horrek aditzera ematen du inbertitzaileek aurreikusten dutela oligopolio teknologikoen merkatu-botereak gora egingu duela, ekonomia zaharreko oligopolioek baino ahalmen handiagoa dutelako kontsumitzaileetatik eta gainerako ekonomia-sektoreetako enpresetatik errenta eskuratzeko.

1970eko hamarkadaren amaieran, Bigarren Mundu Gerraren osteko urteetan izandako monopolioen aurkako eta lehiaren defentsaren aldeko politiken protagonismoaren ondoren, Estatu Batuetako akademiko eta epaile Robert Bork-ek *The Antitrust Paradox* lana argitaratu zuen. Liburuak eragin handia zuen, eta egileak enpresa handiak efizienteak zirela eta kontzentrazio-maila altuko sektore asko lehiakorrak zirela defendatzen zuen. Bestalde, Borkek argudiatu zuen ez zegoela erlazio logiko edo enpirikorik kontzentrazioaren, lehiaren, mozkinen eta soldaten artean. Hala ere, gaur egun, ikerketa ekonomikoko azterlan askotako emaitzetan, kontzentrazioa mozkin handiekin eta soldaten beherakadarekin lotzen dute.

### **Merkatu-boterea eta soldata baxuak: Joan Robinson berriz irakurtzen**

Oligopolioen inplikazio ekonomiko intriganteenetako bat da zenbateko ahalmena duten soldatei beherantz eginarazteko. Lotura hori ahaztuta geratu zen azken hamarkadetako analisi ekonomikoetan. Baina

2008ko finantza-krisia piztu zenetik soldata baxuek ekonomiaren eskari agregatuan eta hazkundera izandako inplikazio makroekonomikoei lotura horri buruzko interesa berpiztu dute.

Soldaten geldialdiak makroekonomialariak zein banku zentralak harritu ditu, ekonomiaren joera deflazionistengatik kezkatuta. «Philips-en kurbak» —ekonomialari britainiarra zen Philips, eta langabeziaren eta soldaten arteko erlazioak ikertu zituen 1960ko hamarkadan— iragartzen duenaren arabera, susperraldian izandako langabeziaren jaitsierak soldaten gorakada eragin behar zukeen ekonomia garatuetan. Baina ez zen hori gertatu. Anomalia horrek kontzentrazio ekonomikoak soldaten geldialdian eta errenta-banaketaren desorekan dituen inplikazioengatik interesa piztu du.

Testuinguru horretan, interes handia du Joan Robinson ekonomialari britainiarraren lana berrirakurtzeak. John Maynard Keynes ekonomialariaren inguruko taldekoa zen, eta Cambridgeko Unibertsitatean ekonomia-irakasle izandako lehen emakumea. Eskola klasikoak defendatutako lehia perfektuaren ereduaren aurrean, Joan Robinsonek lehia ez-perfektuaren teoria bat garatu zuen. 1933an, *The Economics of Imperfect Competition* liburua argitaratu zuen, eta iraultza intelektual handia eragin zuen ekonomian. Liburu hori, hain zuzen ere, José Luis Sampedrok itzuli zuen gaztelaniara, eta Aguilar argitaletxeak argitaratu zuen 1946an.

Joan Robinsonen lan horrekin eta urte berean Harvard Unibertsitateko ekonomialari Edward Chamberlainek argitaratutako *Theory of Monopolistic Competition* lanarekin, lehia ez-perfektuarekin lotutako ikerketa-eremu berri bat ezarri zen ekonomian. Hain zuzen ere, Chamberlainek industria-antolaketaaren eremuan jardun zuen ikertzen, eta Robinsonek, berriz, enpleguaren eremu ekonomikoan egin zituen bere ikerketak, eta merkatu-botereko egoerak alor horretan dituen inplikazioak aztertu zituen *Essays in Theory of Employment* (1937) eta *Introduction to the Theory of Employment* (1937) lanetan.

Robinsonen arabera, lehia perfektuko egoeran, enpresek langileei ordaintzen dieten soldata ekoiztako azken unitatearen balioaren berdina da. Enplegatzaile batek ezin izango luke gutxiago ordaindu, beste enpresa batek zertxobait gehiago ordaindu ahal izango lukeelako, enpresak saldutako

azken unitatearengatik lortu lezakeen zenbatekoarekin bat egin arte. Saldutako azken unitateak, unitate «marjinalak», zehazten du langileak ekoiztakoaren balioa, eta balio horrek, berriz, soldata zehazten du.

Baina Robinsonek honako hau adierazi zuen: merkatu batzuetako lehia ez-perfektua bada, enpresa batzuek «merkatu-boterea» izan dezakete, eta ezohiko errentak eskuratu ahal izango dituzte horri esker, lehiak guztiz ezabatzen ez dituztelako. Robinsonek «monopsonioaren» teoria garatu zuen, botere-merkatua duten enpresek lan-merkatuan soldatak erabakitzei aplikatu dezaketen ahalmena adierazteko. Monopsonio-botere hori eta monopolio-botere terminoa (ezagunagoa da hori) simetrikoak dira. Izan ere, monopolioetan, merkatu-boterea duten enpresek kostuetatik gorako prezioak finkatu ditzakete, eta hala, monopolioko mozkina lortzen dute. Era berean, monopsonio-botereari esker, enplegatzaileek aukera dute langileei beren ekoizpenaren balioa baino gutxiago ordaintzeko, eta alde horretatik ere, ezohiko mozkinak lortzen dituzte.

Gaur egun, ekonomia-ikerketa enpiriko askoetako emaitzek lotzen dute enpresa-kontzentrazioa oligopolioen moduan modu handiekin eta soldaten beherakadarekin, Robinsonen analisi teorikoak iragarritakoaren ildotik. Izan ere, modu handiagoa izan duten oligopolioak dira soldat-igoera txikienak izan dituztenak. Jason Furman-ek eta Peter Orszag-ek (estatubatuarrak biak; lehenbizikoa AEBko Aholkulari Ekonomikoen Kontseiluaren burua izan zen, eta bigarrena, berriz, Kongresuko Aurrekontu Bulegoaren zuzendaria) 2015etik aurrera argitaratutako lanek agerian jarri dute merkatu-boterearen, lehia txikiaren eta desberdintasunen gorakadaren arteko lotura estuak. Lan aitzindari horien ondoren, ikerketa ugari egin dira, eta ebidentzia enpiriko sendoak erakutsi dituzte merkatu-boterearen ondorio makroekonomikoei buruz; hain zuzen ere, ekonomia garatutako desberdintasunen gorakadan izandako eraginari buruz.

### Oligopolioen merkatu-botereari aurre egiteko irtenbideak

Kapitalismoan, soldata txikiak ez dira beti arazo bat izan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, soldatek igoera handiak

izan zituzten, ekonomia-hazkundearen «Urrezko Aroan». Hala ere, 1970eko hamarkadaren amaieratik, soldaten igoerak txikiagoak izan ziren, eta kasu askotan, geldialdia izan zen. Pentsa liteke hori langile bakoitzeko produktibitateak behera egiteagatik gertatu zela, baina Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) egindako ikerketetan, ikusi da 1980ko hamarkadaren hasierako urteetatik handiagoa izan dela lanaren produktibitatearen hazkundera soldaten batez besteko igoera baino, ekonomia garatu gehienetan.

Beraz, galdera hau sortzen da: Zergatik ez diete enpresek langileei gehiago ordaintzen, hori egiteko aukera izanda? Hauek dira ohiko susmagarriak: globalizazioa, automatizazioa eta, oro har, aldaketa teknikoak, sindikatueta afiliazio-maila baxua, eta langileek enpresa batetik bestera aldatzeko dituzten zailtasunak. Baina Joan Robinsonen azterketaren ikuspegitik, arrazoi nagusia merkatu-botereko egoerak dira. Beraz, konponbideak egoera horiek haustera bideratu behar dira.

Duela gutxi argitaratutako *The Great Economists. How their ideas can help us today* (2018) lanean, Linda Yueh-ek galdetzen du nola egingo liokeen aurre Linda Robinsonek gaur egungo soldata baxuen erronkari. Eta adierazten du Robinsonek gomendatutako bidea langileen botere-negoiazioa handitzea izango zela, soldata-errenten apropiazioa langileen eta enplegatzailen arteko negoziazio-ahalmena desorekatuan oinarritzen den neurrian. Hori lortzeko modu bat sindikatuak indartzea izango litzateke. Beste bide bat legedia izan liteke, langileak berdintasun handiagoko posizioan jartzeko enplegatzailerekiko; esaterako, langileak enpresen gobernu-organoetan sartuta. Ildo horretakoak dira Estatu Batuetako kongresukide demokrata Elizabeth Warrenek kapitalismoaren erreformarako egindako proposamenak edo Erresuma Batuko kontserbadoreen proposamenak.

Baina Robinsonen azterketatik, soldata baxuen eta horrek sortzen duen desberdintasunaren arazoa konpontzeko sortzen den gomendio nagusia oligopolioen merkatu-boterearen iturria desagerraraztea da, lehia handitzearen bitartez. Bide hori bat dator nazioarteko erakundeak, hala nola ELGE, eta ekonomialari asko proposatzen ari

direnarekin. Alde batetik, ondasunen eta zerbitzuen merkatuak erreformatzea, merkatuan sartzeko hesiak eta zuzendarien eta enplegatuen kontratuetan lehia mugatzen duten beste klausula batzuk desagerrarazteko, eta patenteei buruzko legedia erreformatzea. Bestetik, lehiaren defentsarako politikak erreformatzea eta sendotzea.

Lehiaren defentsarako politiken erreformak oso rol garrantzitsua du enpresa teknologikoen eta plataforma digitalen merkatu-boterearen kasuan. Enpresa eta plataforma horiek xx. mendeko azken hamarkadetan ez zegoen errealitate bat eratzen dute. Monopolioen aurkako politika tradizionala —monopolioak zatitzea, hain zuzen— ez dirudi egokiena monopolio digital berrien ezaugarrietarako. Bide alternatibo bat izan liteke plataformak, hala nola Facebook, Alphabet, Uber eta Twitter, zerbitzu publiko (*public utilities*) gisa tratatzea, haien bezeroen datuak beste enpresentzat eskuragarri egonda. Halaber, erakargarria da lehiarako Europako agentziek, hala nola Alemaniako agentziak eta Europako Batzordeak, lehiari buruzko politikak errealitate digital berrira modernizatzeko eta egokitzeko hartutako bidea.

Modernizazio horretan, lehiari buruzko politikak bere arreta-foku konbentzionala zabaldu behar du, merkatu-botereak ongizatean eta desberdintasunean eragindako inpaktuekin lotutako inplikazio makroekonomikoak bere baitan hartzeko. Hain zuzen ere, oligopolio teknologikoen eta plataforma digitalen kasuan. Lehen aipatu dudatan moduan, Jason Furmanen eta Peter Orszagen lanek agerian jarri dute merkatu-boterearen, lehia ahularen eta desberdintasunak handitzearen arteko lotura estuak. Emaiza horiek egiaztatu dituzte duela gutxiagoko beste ikerketa batzuetan.

xxi. mendearen hasieran, aurreko mendearen hasieran gertatu bezala, enpresa handien merkatu-botere gero eta handiagoa gure garaiko erronka handietako bat da. Enpresa handi horien merkatu-botereak soldata baxuetan, enpleguaren prekarietatean eta desberdintasunean dituen inplikazio ekonomikoak, portaerari buruzko beste eragin batzuez gain —ekonomia industrialaren arloan aztertzen dira horiek—, ekonomialarien, lehiaren defentsarako agintarien eta gobernuen lehentasunezko arreta merezi dute. ■